

BEGI ERNEA

XT 217 lerdoa goizeko bostetan esnatzen da, emazteak prestatzen dion kafea trago batez edaten du, eta emakumea agurtu gabe, kalera irteten da. Presati ibiltzen da minutu guztiak zenbatuak bait ditu trenera iristeko. Gaur, hala ere, portal batean itxaroten ari zen neskaxa baten presentziak erakarri du. Espaloiez aldatu eta ixilpean hurbidu zaio. Neskaxaren albotik pasatzean eskua sartu dio iztar artean. Neskaxak segituan garrasi egin du eta haserre eta guztiz iraindurik txerrikume nazkagarria deitu dio. XT 217, urruntzen den bitartean mihia sugandila mugimendu lizunez astintu du. Momento hortantxe portaletik mutil gihartsu bat irten da. Neskaxak XT 217 seinaleztatzen du: "Hura izan da". Mutil gazteak XT 217 lerdoari jarraitzen dio, bi pauso azkarretan harrapatzen du eta XT 217 harrituta nork eusten dion jakiteko bueltatzen den einean, mutil gihartsuak zaplazteko batez lurrera botatzen du. Modu honetan, gaur XT 217-k 6:07-etako trena galtzen du eta lanera berandu iristen da. Obrako arduradunak mehatxatu eta lankideen aurrean iraintzen du -ez da lehen aldia lanera berandu iristen dena eta inpuntualitatek arduraduna bere onetik ateratzen du-. Arratsaldean XT 217 lerdoak- behatzak atximurkatzen ditu baldosak ipintzen ari dela. Larrialdi zerbitzuetako ilara amaitezina da. Hiru orduz itxaroten du. Berririo ohizko trena galtzen du, 19:39-etakoa. Azken eragozpen honek guztiz sumintzen du, korrika batean geltokia gurutzatu eta azken saltoa emateko prest zegoenean treneko ate automatikoak isten direlako. 20:39-etako trenean etxeratzen da -20:00-etatik aurrera trenak orduro ateratzen dira-. Ezkerreko eskuaz patioa irekitzen du -eskubia eskaiolaturik du-. Igogailuko oharra irakurtzen du: EZ DABIL. Etxera nekaturik iristen da. Telebista pizten du. Zorionekoa da; partidua oraindik ez da hasi! Sofan etzaten da, urduritasuna Ducados paketearekin lasaitzen duen bitartean, baina haserretu egiten da, bere taldeko jokalariei inoiz ikusi ez den goleada historikoa sartzen dielako. Champions League-tik kanpo geratzen da talde. XT 217 benetan haserretzen da. Bere futbolarien jokoaz lotsaturik dago. Barregarri utzi dute. Horregaitik minutu gutxitara telefoak hots egingo du eta ML 193, aspaldiko lagun eta kontrako taldearen fanatikoak, burla egingo dio. Ain zuzen ere: telefono soinuaren ring ring jasanezina komedorean entzuten da eta XT 217-k larriturik, oihuka egiten du: "¡Ez erantzun...ML 193 da...ni zirikatu nahiean dabil!". Emazteak,

sukaldean afaria egiten ari dela, harriturik begiratzen dio eta telefonoa desesekitzen du. XT 217 ziztu bizian altxatzen da, telefonoaren kablea lurrera botatzen du bultzada batez eta segituan emaztearengana bueltatzen da. Ezertarako balio ez duela esan ondoren aurpegian muturreko bat eman eta sudurretik odoletan uzten du. (Gauzak okertzen direla ikusirik, izkinean ikasten zegoen alabak, liburua hartu eta atea itxiz etxeko egongelatik desagertzen da). Emazteak haserre senarra sofara lasai lasai bueltatzen dela ikusirik telefonoa eskutan hartu eta okzipitalen tartekatzen dio. Nahiz eta hasiera batean golpeak lekuz kanpo utzi duen, XT 217 azkar zentratu eta erreakzionatzen du. Gorroto biziz emakumearen atzetik doa izugarrizko jipoia emateko desirarekin. Emazteak, senarraren eskuetatik ihesean, bidean eskuratzen dituen objektuak jaurtikitzen dizkio -bi baso, pitxer bat, familiako argazki enmarkatua-. Senarrak teknika eta estilo elegantez txiri egiten die, ez da ordea, bidean haurkitu duen objektu haundiena alde batera uzteko gai: telebista bularrean estanpatu eta lurrera erortzen da. Insultatzen altxatzen da. Garrasien tonua gero eta beldurgarriagoa da eta lepo nahiz kopeteko zainak nabarmenagoak. Haserradura biziko ibai sendoak dira. XT 217 lerdoa bere onetik aterata alde guztietera begira dabil. Ez du aurkitzen. Baina orduan sehaskara urbildu eta umea eskuetan hartzen du. Umearekin emaztea mehatxatzen du, berarengana urbiltzen ez bada, umea balkoitik behera jaurkiko du. Emakumea jantokira bueltatzen da; eskuan labana du dardarean: ¡Nazkagarria, eroa, aska ezak semea! XT 217, andrearen garrasiekin itsuturik, umea bostgarren pisuan dagoen etxeko balkoitik jaurtikitzen du. Denbora gelditzen da. Isiltasun luze batek beraien onera ekartzen ditu. Emaztea labana askatu eta eskaileretatik behera jeisten da. Lerdoa desesperaturik negarrez hasten da. Emakumeak kalera iristean, ez du semea aurkitzen. Harritzekoa bada ere, ez da semearen arrastorik; ez gorputzik ez eta odol butzurik. Kale osoan bilatzen du kotxeen azpian eta zirrikituetan. Alperrik, ez da inon ageri: "¿zer gertatu ote zaio?" Andreak, bizitzear dituen egunak hipotesiak formulatzen pasako ditu; baina ez du inoiz egia jakingo: semea lastoa zeraman kamioi baten atoiara erori da. Materialaren goxotasunaren ondorioz, bizirik segiko du. Zoritarrez eskubiko begia galdu du.

* * *

Hurrengo goizean, garajea eskobatzen ari zen garraiolariaren emazteak negar aulak entzuten ditu. Umea aurkitu ostean, Jainkoaren señaile gisa sentitzen du, fertilitate arazoen ondorioz deszendentzia izatea ezinezko bait zaio. Aurkikuntzaren izaera

misteriotxuarekin, ama adoptiboak, Moises izen biblikoa jarriko dio. Paralelismo errezen bidean, segituan sinesten du señale berriak jaioberriaren bizitza erabakiko duela. Moisesek bizitza lineal eta estandarra izango du, eta umeen gaiztakeriek azaletik soilik igurtziko du normaltasuna. Izan ere, haurreskolan begi bat falta zaiola ohartzen direnean "itxua" apodoa ezarriko die. Urte batzuk geroago, lagunak hezituz lexikoa haunditzen zaielarik, apur bat zuzendu eta "begibakar" izenez ezagutuko dute. Azkenik, institutoan, izen zuzenarekin topatzen dira mitologia klasikoan sakontzerakoan eta hura izanen da bere ezizen pertsonal eta intransferiblea: "Ziklopea".

Moises Ziklopearen bizitzako berezitasuna lagunak asediatuak geratzen diren kontrol polizial batean suertatzen da. Gainean daramaten materiala leihotik jaurtiki ezin dutelarik -autoaren bi aldeak Guardia Zibilak linternaz argitzen ditu-, erabat galduak sentitzen dira. Orduan, Ziklopeak bere bizitza aldatuko duen okurrentzia inozentea izango du: kristalezko begia atera eta hachisa begizuloan sartuko du, kristalezko begia berriz ere bere tokian ipiniz.

Ekintza honek, hasiera batean larritasun batetik ateratzeko finalitatea besterik ez zuenak, expektatiba zabaleko hodeiertzez beteko ditu Ziklopearen burutapenak eta ezin izango dio trafikante izatearen tentazioari eutsi.

Nahiz eta zuloa ez den oso handia, errez gorde ditzake bost extasi eta bi gramo kokaina...

Idea erakargarria da. Asteburu guztietan egiten du kalitatezko diru sarrera. Hilabete gutxi barru lana utzi eta bere energia guztia, oso osorik, zulo ezkutua hustiratzera bideratuko du.

Larunbat honetan, negozioak egiteaz gain ligatzea erabaki du. Diskotekaren dantzalekuan kristalezko begia atera, zulotik pastila hartu eta prezio onean saltzen du. Dirua jasotzean, begia behatzetatik irristatu eta ping-pong-eko pelota batek egingo lukeen errebote berberaz, lurrera jauzi bezain laister dantzatzen dagoen neskatxa batek zapaldu eta zati-zati egiten du. Neskak barkamena eskatu eta Ziklopeak ez arduratzeke esaten dio baduela beste bat ordezkatzeko. Ezberdintasuna argitzen dio gainera: begi hau, larruzko boltsa txiki batean gordetzen duena, bere begi raver-a da; eta soilik extasis doanean erabiltzen du. Pupila dilatatu du eta ingurunea zain gorritz josia hiperrealismo handiz, drogaturik egotean beste begiarekin parekatzeko. Nahiz eta gaur jarri nahi ez izan (mestizajea praktikatzeko irrikitan dagoelako, eta pastilak hartzen baditu guztia pikutara botatzen du, bozgorailura lotzen da kromo bat bailitzan eta gero etxean bakardadean beheraldiaz damutzen da), egoerek sustantzia toxikoak irentstera

bultzatzen dute. Neskaxa barrezka hasi eta ezagutu egin dira. Orain batera dantzatzen dute eta neska despistatzen den momentuetan begia ipurdira zuzentzen du. Baina inkontzienteki, kimikaren eragina handitzen dela, bere burmuina bozgorailuko taupada elektronikoei xurgatzen dute.

Bost ordu geroago, goizeko hamarretan, kale zabal batetik pedalei eragiten ari da. Beti etxeratzen da kale aldapatsuetatik bizikletan eta Trafiko Zuzendaritza Orokorra madarikatzen du gida baimena begibakarrei ukatzen dielako. " Zergatik ez digute puta seme hoiek gidatzen uzten?", behin eta berriz errepikatzen du. Maldizio guztiak ahotik ihes egiten dutela, ezkerreko begian eltxo bat sartzen zaio. Ziklopeak momentu batez ikusmena galtzen du, karreterako ardatzetik desbideratu, kontrako gurdibidea inbaditu eta aurrean duen kamio batek harrapatzen du. Inpaktuaren ondorioz begi raver-a kalean behera biraka ibili ondoren parke bateko zelaian geratzen da.

Bertan Mikelek, XT 217-ren ilobak begia hartu eta aitonarengana zuzentzen da: " Begira ze puxtarri polita!", eta erakutsi egiten dio. XT 217-k begia eskuetan hartu eta goitik behera aztertzen du. Garondoko ileak zutitzen dizkion hotzikara sentitzen du. " ;Hau ez da puxtarri bat, lerroa!" eta kokoteko bat askatzen dio. Umea negarrez hasten da. T 217-k begia lurrera bota eta zapaldu egiten du. Paseatzen ari diren bideko hauts artean gelditzen dira begiko beira meheak, haizeak, pilatzen eta sakabanatzen dituelarik.

Translated by Lohitzune Intxausti Amas